ULERMENA. Irakurri testua eta erantzun galderak.

MENDI MAGALEAN

Gu mendian bizi gara, Anboto mendiaren magalean.

Gure baserriaren aurrean erreka txiki bat dago. Udaberrian ur asko ekartzen du errekak; udan, berriz, ez du ia urik izaten.

Baserriaren atzeko aldean Anboto mendia dago. Mendira joateko, baserritik hurbil dagoen basoa zeharkatu behar dugu. Basoa zuhaitzez bete-beteta dago.

Anboto sarritan lainotuta egoten da.

1- Noiz ekartzen du ur asko errekak?
a) Udan ekartzen du ur asko errekak.
b) Udaberrian ekartzen du ur asko errekak.
c) Neguan ekartzen du ur asko errekak.

2-Nola egoten da erreka udan?
a) Ez da ia urik egoten.
b) Bete-beteta egoten da.
c) Erdi beteta egoten da.

3- Non dado Anboto Mendia?
a) Baserriaren ondoan dago.
b) Baserriaren atzeko aldean dago.
c) B aserriaren aurreko aldean dago.

4- Nola dago basoa?
a) Landarez beteta dago.
b) Hostoz beteta dago.
c) Zuhaitzez bete-beteta dago.

5- Nola egoten da Anboto sarritan?
a) Eguzkitsu egoten da.
b) Lainotuta egoten da.
c) Euritsu egoten da.